

**HEZKUNTZA-ARLOKO PREBENTZIO-
ETA JARDUN-PROTOKOLOA,
GERTA DAITEZKEEN HAURREN
ETA NERABEEN BABESGABETASUN-
EGOERETARAKO ETA EDOZEIN INDARKERIA
FISIKO, PSIKOLOGIKO, EMOZIONAL
ETA/EDO SEXU-INDARKERIA MOTARAKO**



Dokumentuaren egileak:

- Hezkuntza Saila
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila
- Segurtasun Saila
- Osasun Saila
- Haurrak eta Nerabeak Babesteko Arabako Foru Gizarte Zerbitzuak
- Haurrak eta Nerabeak Babesteko Bizkaiko Foru Gizarte Zerbitzuak
- Haurrak eta Nerabeak Babesteko Gipuzkoako Foru Gizarte Zerbitzuak
- Gasteizko Udal Gizarte Zerbitzuak
- Bilboko Udal Gizarte Zerbitzuak
- Donostiako Udal Gizarte Zerbitzuak
- Gizarte Zerbitzuetako ordezkaria EUDEL-en

Edizioa

2º, Octubre 2024

@ Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Hezkuntza Saila

Internet

<https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-educacion/>

Argitaratzailea

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. Donostia-San Sebastian, 1. 01010 - VITORIA-GASTEIZ

Inprimatzailea

Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua.

Aurkibidea

1.	Sarrera eta kontzeptu orokorrak	5
	1.1. Jardun- eta prebentzio-protokolo honen helburua	6
	1.2. Erreferentziako araudia	7
	1.3. Jarduteko printzipio orokorrak	9
2.	Haur eta nerabeen babesgabetasun-egoeren definizioa, adierazleak eta jarduteko prozedura	10
	2.1. Haur eta nerabeen babesgabetasun-egoeren definizioa eta adierazleak	12
	2.2. Gerta daitezkeen babesgabetasun-egoeretan jarduteko prozedura	13
3.	Eskola-esparruan antzemandako indarkeria fisiko, psikologiko, emozional eta/edo sexu-indarkeriako egoeren definizioa, adierazleak eta jarduteko prozedura	16
	3.1. Eskola-esparruan antzemandako indarkeria fisiko, psikologiko, emozional eta/edo sexu-indarkeriako egoeren definizioa eta ezaugarriak	17
	3.2. Eskola-esparruan antzemandako ustezko indarkeria fisiko, psikologiko, emozional eta/edo sexu-indarkeriako egoeretan esku-hartzeko prozedura	20
4.	Prebentzio-jarduketak hezkuntza-esparruan	24
	4.1. Irakasleak prestatzea	25
	4.2. Familiak informatzea eta prestatzea	25
	4.3. Ikasleak prestatzea	25
5.	Gizarte zerbitzuei jakinarazteari buruzko alderdi esanguratsuak	26
	5.1. Informazio-trukea ikastetxeen eta gizarte zerbitzuen artean	27
	5.2. Sinatzaileei lekuko gisa dei egitea	28
	5.3. Espedientea eskuratzea	28
	5.4. Eskola-testuinguruan adingabeei eginiko elkarrizketen legitimitatea	28
	5.5. Ikastetxearen laguntza adingabeak babesteko neurrien exekuzioan	29
6.	Hezkuntza-arloan eskumena duen sailaren eta osasun-zerbitzuen arteko koordinazioa	31
	6.1. Premiaz jardutea eskatzen duten lesio fisikoak edo egoerak antzematea	32

7.	Hezkuntza-arloan eskumena duen sailaren eta ertzaintzaren arteko koordinazioa	33
	7.1. Prozedura eta koordinazio-jarraibideak	34
	7.2. Ertzaintzak adingabeko biktimen edo babesgabezia-egoeran dauden adingabeen kasuan esku hartzeko jarraibideak	35
8.	Hezkuntza-arloan eskumena duen sailaren eta fiskaltzaren arteko koordinazioa	36
	8.1. Prozedura eta koordinazio-jarraibideak	37
9.	Hezkuntza-arloan eskumena duen sailaren eta epaitegiaren arteko koordinazioa	38
	9.1. Prozedura eta koordinazio-jarraibideak	39
10.	Protokoloaren ebaluazioa eta segimendua	40
11.	Eranskinak	42

IKASTETXEARENTZAT

I. Eranskina: Adingabearen babesgabetasun-egoerak haurrak eta nerabeak babesteko udal edo foru gizarte zerbitzuei jakinarazteko fitxa

II. Eranskina: Familiari jakinarazteko idatzia

III. Eranskina: Adingabe baten aurkako ustezko indarkeria fisiko, psikologiko eta/edo sexu-indarkeriako egoerak Ertzaintzari, Fiskaltzari edo Epaitegiari jakinarazteko fitxa

VIII. Eranskina: Udal gizarte zerbitzuen helbideak eta telefonoak

BESTE ZERBITZU BATZUENTZAT

IV. Eranskina: Ikastetxeari laguntza eskatzea, haurrak eta nerabeak babesteko foru zerbitzuak/udal gizarte zerbitzuek abian duten segimendu-prozesu bati dagokionez

V. Eranskina: Udal gizarte zerbitzuen ofizio/komunikazioa ikastetxeari, arrisku- edo babesgabetasun-egoeren ingurukoa.

VI. Eranskina: Foru aldundiaren laguntza-eskaria ikastetxeari, haurra bertatik ateratzeko

VII. Eranskina: Udal gizarte zerbitzuaren edo haurrak eta nerabeak babesteko foru zerbitzuaren informazio-eskaria



**Sarrera eta
kontzeptu orokorrak**

1.1. Jardun- eta prebentzio-protokolo honen helburua

Protokoloaren funtsezko helburua adingabeak babestea da, Euskadiko ikastetxe guztietan gerta daitezkeen babesgabetasun-egoeren eta edozein indarkeria fisiko, psikologiko, emozional eta/edo sexu-indarkeria motaren aurrean, aipatuen titulartasuna edozein dela ere (8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzkoa, 34. art.). Protokolo honen xedea da:

- Zenbait **jarraibide** ematea, adingabe edo nerabe bat babesgabetasun-egoeran jar dezaketen edo edozein indarkeria motaren biktima egin dezaketen arriskuak eta egoerak eskolan **prebenitzeko eta behar adinako aurrerapenarekin antzemateko**, 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzkoak eta 2/2024 Legeak, otsailaren 15ekoak, Haur eta Nerabeenak (HNL aurrerantzean) diotenarekin bat.
- **Jarraibideak** eskaintzea, adingabe edo nerabeek ustezko babesgabetasun-egoeran daudenean eta edozein indarkeria mota (fisiko, psikologiko edo emozionala eta/edo sexu-indarkeria) jasaten dutenean **eskola-esparrutik nola jardun jakiteko**.
- **Koordinazio-prozedurak** ezartzea hezkuntza-arloan eskumena duen sailaren eta Gizarte Zerbitzuen (udal-mailakoak eta/edo Haurrak eta Nerabeak Babesteko Foru zerbitzuak), Ertzaintzaren, Fiskaltzaren eta Osasun Zerbitzuen artean.
- Erakunde guztien **jarduketan koherentzia sustatzea**, eraginkorragoak izan daitezen, prozesu, laguntza- eta babes-bermeak sustatzea, eta adingabearekin egiten diren jarduketak behar-beharrezkoak baino ez direla bermatzea, eginbideak, deklarazioak eta azterketak errepika ez daitezen, horrek adingabearen egoera emozional ahula eta biktimizazioa areagotu besterik ez luke egingo eta.



1.2. Erreferentziako araudia

8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzkoa

IV. kapituluak hezkuntza-eremua arautzen du, ondoko artikuluen bitartez:

30. artikulua, printzipioei buruzkoa, non ikasleen eta, batez ere, kalteberatasun berezia duten adingabeen parte-hartzea, besteekiko begirunea, duintasuna eta eskubideak bermatzeko beharra nabarmentzen den.

31. artikulua, hezkuntza-antolaketari buruzkoa. Ikastetxe guztiek bizikidetza-plan bat egiteko duten beharra zehazten du. Plan horren jardueren artean daude ikastetxeko langileek, ikasleek eta hezkuntza-komunitateak tratu ona sustatzeko eta gatazkak modu baketsuan konpontzeko trebetasunak eskuratzea, sentsibilizatzea eta heztea.

32. artikulua, ikastetxeetako kontratazioa gainbegiratzeari buruzkoa. Artikulu honek diotenaren arabera, hezkuntza-administrazioek eta ikastetxe guztietako zuzendari eta titularrek segurtasuna gainbegiratzeko dute langileak kontratatzean, eta sexu-izaerako delituen inguruko derrigorrezko ziurtagiriak ekartzen dituztela kontrolatzeko dute.

34. artikulua, jarduketa-protokolei buruzkoa. Hezkuntza-administrazioek jarduketa-protokoloak arautuko dituzte, honako hauen aurka egiteko: abusua eta tratu txarrak, eskola-jazarpena, ziberjazarpena, sexu-jazarpena, genero-indarkeria, etxeko indarkeria, suizidioa eta autolesioa, bai eta lege honen aplikazio-eremuan jasotako beste edozein indarkeria-adierazpen ere. Protokolo horiek ikastetxe guztietan aplikatu beharko dira, edozein dela ere haien titulartasuna, eta aldian-aldian ebaluatu egin beharko dira, eraginkorrak diren baloratzeko. Ikastetxeetako irakasleek edo hezitzaileek, ikasleen gurasoek edo hezkuntza-komunitateko edozein kidek indarkeria-zantzuak detektatzean jarri beharko dira abian, edota hurrek edo nerabeek egintzak komunikatze soilarekin.

35. artikulua, zeinaren arabera adingabeak ikasketak egiten ari diren ikastetxe guztiek, haien titulartasuna edozein dela ere, ikasleen ongizate- eta babes-koordinatzaile bat izan beharko duten.

2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Haur eta Nerabeena

2/2024 Legeak, otsailaren 15ekoak, Haur eta Nerabeena (aurrerantzean, HNL), adingabeen eskubideen sustatzeari eta babesari dagokienez erakunde ezberdinek eta beren langileek jarraituko dituzten printzipio gidariak zehazten ditu 13. artikuluan.

Horiez gain, **haurren aurkako indarkeria edo babesgabetasun-egoeretan jarduteko eginbeharra** zehazten duten lege bereko **16. 17. eta 170. artikuluetan** ere jasotakoa bete beharko dute. Zentzu horretan, 17. artikulua

komunikatzeko eginbehar kualifikatuaz dioena nabarmendu beharra dago. Aipatu eginbeharra bereziki eskatuko zaie beren kargua, lanbidea edo eginkizunak, ogibidea edo jarduera direla eta pertsona adingabearen kontra sortutako indarkeria-egoera baten berri duten, edo pertsona adingabe horren babesgabetasun-egoera posible baten berri duten pertsonen. Talde horien barruan daude **ikastetxeetako irakasleak eta irakasle ez diren langileak**; eta, bereziki, **ongizate eta babeserako koordinatzailea**.

Ikastetxeek, haurren eta nerabeen kontrako indarkeriaren prebentzioari dagokionez, NHLren II. kapituluko II. tituluaren duden ondoko artikulua bete beharko dituzte:

134. artikulua.- Eskola-eremuan indarkeria prebenitzeko jarduketak.

135. artikulua.- Ongizate eta babeserako koordinatzailea.

Halaber, *haurren eta nerabeen kontrako indarkeria-egoeren detekzioari eta esku-hartzeari* buruzko lege honetako III. kapituluaren xedatutakoa ere bete beharko da, ondoko artikulua dioena bereziki:

144. artikulua.- Ikastetxeen jarduketak.

Horiez gain, babesgabetasunarekiko zaurgarritasun-egoeren eta babesgabetasun-egoeren prebentzioari, detekzioari eta babesari buruzko VI. Tituluko xedapenak ere beteko dira. Bai eta **datuen tratamenduari** loturiko arauak ere, **18. artikulua** dioena betez.

Halaber, aintzat hartuko da **314 artikulua pertsona adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanbide, ofizio eta jardueretan sartzeko prozedurei eta betekizunei** dagokienez dioena. Zentzu horretan, ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren adingabeekin arruntean harremana izatea dakarten lanbide, ofizio eta jardueretan aritzeko betekizunari buruzko 57.1 artikulua dioenari jarraiki, nahitaezkoa izango da, adingabeekin arruntean harremana izatea dakarten edozein lanbide, ofizio eta jardueratan hasteko eta horietan aritzeko,

epai irmo bidez kondenatua ez izatea Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren VIII. tituluaren tipifikatutako sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako edozein delitugatik, ezta Zigor Kodearen VII bis tituluaren tipifikatuta dagoen gizakien salerosketako edozein delitugatik ere. Horrenbestez, lanbide, ofizio edo jardueraren horietan aritu nahi duen orok Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztuz egiaztatu beharko du inguruabar hori. Xedapen honen xedea da haur eta nerabeen babes integrala bermatzea, bai eta ingurune segurua bat sustatzea adingabeentzat, indarkeriarik gabekoa, profesionalekin eta pertsona heldu arduradunekin harremanak izatea eskatzen duen edozein eremutan.

Haur eta Nerabeen Legeko xedapenez gain, 21/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrari buruzkoa (EHAA, 2008-12-16) ere kontuan izango da. Dekretu horrek ikastetxeetako ikasleen eskubideak eta betebeharrak zehazten ditu, HNLren xedapenak eskola-esparruan osatzen dituen beste araudi bat eskainiz. Oso garrantzitsua da xedapen horiek aintzat hartzea eskola-esparru segurua eta ikasleen garapen integralerako aproposa bermatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan.

1.3. Jarduteko printzipio orokorrak

Protokolo honen barruan, elkarrekintzak eta erabakien hartzea orientatzeko funtsezko erreferentzia izango diren printzipio orokor batzuk zehaztu dira. Printzipio hauek jarraibide etikoak dira eta lankidetzaz, integritatea eta konpromisoa sustatzen dute garatu beharreko jarduketaz guztietan:

- Adingabearen interes gorenaz bermatzen jardutea beti eta bere eskubideen gauzatzea eta babesaz zaintzea, bereziki haurren eta nerabeen aurkako edozein indarkeria-formaren aurrean.
- Haurren edo nerabearen garapen arrunta oztopa dezaketen eta balizko babesgabatasun-egoera bat (arrisku-egoera edo babesgabezia) ekar dezaketen egoera guztiak prebenitzea eta behar adinako aurrerapenarekin antzematea.
- Esku-hartzea sistema ezberdinen artean koordinatzea arautuak, partekatuak eta guztion aburuz haurren eta nerabeen babesgabatasun egoerei zein haur eta nerabeen kontrako edozein indarkeria motari aurre egiteko aproposak diren jarraibide onartuak jarraituz. Informazio-trukea, kasuen koordinazioa eta legezko babes-neurrien exekuzioa ere koordinatu beharko dira.
- Arreta berezia eskaintzea haurren aurkako edozein indarkeria mota, tratuz txar fisiko edo psikologiko, sexu-abusu edo beste edozein abusu mota detektatzeko eta komunikatzeko prozesuei. Halaber, arreta berezia eskainiko zaio tratatuak izan ez diren desgaitasun fisiko, psikiko edo intelektualean existentziari, beti ere adingabearen ongizatea, garapen pertsonala, integritate fisiko edo mentala edo bere eskubideak oztopa baditzaizkete. Horrenbestez, eskola-esparruan, gizarte zerbitzuetan, osasun eta segurtasun arloetan lan egiten duten langileen eta profesionalen inplikazioak eta koordinazio gorenak ezinbesteko garrantzia dute.
- Bizkortasuna, esku-hartze azkarra, eraginkorra eta gardena, batez ere babesgabatasun larria eta presazkoa denean, atzerapenak saihestuz esku-hartzean.
- Hezkuntza-tratamendua eta kalteak konpontzeko lanak: hezkuntza-arlotik hezkuntza-neurriak eta -bitartekoak jarri behar dira indarkeria-ekintzak ekiditeko eta prebentzio-faktoreak eta positiboak sustatzeko; halaber, hezkuntza-neurriak proposatu eta landu behar dira hondatutako harremanak birsortzeko eta biktimei laguntza osoa eman eta haiei eragindako kalteak konpontzeko.
- Ahalik eta gutxien esku-hartzea, bikoiztasunak eta, bereziki, esku-hartzeen errepikapenaren ondoriozko tratuz txar instituzionala saihestuz.
- Behar bezalako erreserba mantenduz jardutea haurrak eta nerabeak artatzeko eta babesteko arloan, beharrezko neurriak hartuz, intimitaterako eskubideari jarraiki, eskuratu den informazioaren konfidentzialtasuna bermatzeko. Neurri horiek, halere, beharrezko babes-neurrien mende egongo dira.

Jarduketa guztiak printzipio hauen arabera egin beharko dira: konfidentzialtasuna, azkartasuna, zuhurtasuna eta ahalik eta sentsibilitate eta begirunerik handiena inplikaturako pertsonekin. Adingabeak inplikaturatu dituzten kasu guztietan haien babesari emango zaio lehentasuna eta prozedura osoan zehar adingabearen interes gorenaz bermatuko da.



**Haur eta nerabeen
babesgabetasun-egoeren
definizioa, adierazleak eta
jarduteko prozedura**

Gizarteak, oro har, haur eta nerabeei tratu egokia eman eta haien eskubideak babestu behar ditu; halere, **babesgabetasunaren kontzeptuak esan nahi du, zehazki, adingabeen zaintza duten pertsonak** — gurasoek edo legezko tutoreek— **zaintzarako ezarrita dauden babes-betebeharrak ez dituztela betetzen edo era desegokian betetzen dituztela, haurren eta nerabeen garapena kaltetuz.**—

Beraz, babesgabetasuna dago baldin eta gurasoek edo legezko tutoreek adingabea babesteko duten betebeharra ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik sortu bazaio kaltea adingabeari. Bi arrazoi egon daitezke horretarako: pertsona horiek eraso sustatzea edo adingabea beste batzuen erasoetatik edo eskubide-urratzetik babesteko gai ez izatea. **Kasu honetan, gizarte zerbitzuek eskumen osoa daukate.**

Adingabeen babesgabetasunarekiko zaurgarritasun-egoeren eta babesgabetasun egoera beren (hau da, arrisku egoerak –arrisku arin, ertain zein larria– eta babesgabezia) aurkako esku-hartzeak zerbitzu, erakunde eta administrazio publikoen arteko esku-hartze koordinatua eskatzen du, kasu zehatzari egokitutako erantzun azkar, eraginkor eta berezia ahalbidetuko duen espazio batean. **Zentzu horretan, gizarte- eta hezkuntza-arloko batzordeak funtsezko baliabidea izango dira arazo mota honi aurre egiteko, haurra babesteko administrazio-espeditante bat irekitzeko beharrik gabe.** Honela, xedea da prebentziozko eta biktimei eta beren gertuko ingurune babesleari lagunduz esku hartu ahal izatea babesgabetasunarekiko zaurgarritasuneko kasuetan, familien ingurune naturaletik bertatik, pairatutako kaltea konpondu ahal izateko.

Gizarte- eta hezkuntza-arloko batzorde horiek funtsezko esparrua izango dira elkarlanerako eta, ondorioz, protokolo honek —aipatuak sortu, eratu eta abian jartzeko eta, dagoeneko eratuta dauden batzordeen kasuetan, elkarlanerako espazio hori sendotzeko— ondoko lan- eta funtzionamendu-metodologia proposatzen du (batzorde bakoitzak aipatu batzordea egokitu ahalko du):

- Saioak udal gizarte zerbitzuek deituko dituzte; nolana ere, aztertu beharreko kasuak babesgabetasun-egoeraren balizko deklarazioa ekar dezakeen babesgabetasunean erortzeko arriskuko egoera bati (adibidez, egoera horretan deklaraturako anai-arreba bat izan eta aipatu deklarazioa ekarri zuten baldintzak oraindik mantentzen direla ikusi ostean) lotuta daudenean, haurrak eta nerabeak babesteko foru zerbitzuek deituko dute saioa.
- Aztertutako kasuak ez dira inoiz udal gizarte zerbitzuen komunikaziotzat hartuko. Horrela izan dadin, jakinarazpen bidez egin beharko da (I. Eranskina: *Adingabearen babesgabetasun-egoerak haur eta nerabeak babesteko udal edo foru gizarte zerbitzuei jakinarazteko fitxa*).
- Ikastetxe bakoitzak, udal gizarte zerbitzu bakoitzak eta dagokion osasun zentroek erreferentziako profesional egonkorak izendatuko dituzte, batzorde horietan parte hartzeko. Udal gizarte zerbitzuek gizarte-langileen eta komunitate-mailako psikologien presentzia bermatuko dute halabeharrez, horrelakorik dauden kasuetan. Osasun zentroek ordezkari bat izendatuko dute. Halaber, ikastetxeen kasuan, ongizate eta babeserako koordinatzaileak eta/edo irakasle aholkulariak edo orientatzaileak bertaratuko dira.
- Batzorde bakoitzak beste zerbitzu, erakunde publiko edo administrazio publiko batzuetako (lehen-mailako arretako osasun zentroak, buruko osasuneko sarea, etab.) profesionalen partaidetza (puntuala edo iraunkorra) aztertuko du. Era berean, profesional horiek aipatu batzordetara bertaratzea eska dezakete, kasu berezi bati buruzko informazioa eman edo kasu zehatzen bat planteatzeko.

2.1. Haur eta nerabeen babesgabetasun-egoeren definizioa eta adierazleak

Gogoratu beharra dago babesgabetasun-egoerak, zentsu hertsian, haurren edo nerabearen eskubideen urratzeak direla familiaren aldetik; edo, familiatik kanpotik datozenean, urratze horren ondoren adingabeen zaintza duten pertsonak — gurasoek edo legezko tutoreek— zaintzarako ezarrita dauden babes-betebeharrak ez dituztela bete edo era desegokian bete dituztela.

Atal honetan HNLren 158. artikuluan xedatutakoa hartu da aintzat. Aipatuak ondokoa dio:

158. artikulua.- Haur eta nerabeen babesgabetasuna eta babesgabetasunarekiko zaurgarritasuna.

- 1. Babesgabetasuna pertsona adingabe baten egoera bat da, legezko ordezkariak, harreragileek edo zaintzaileek dagozkien hazkuntza-eginbeharrak ez betetzeagatik edo behar bezala ez betetzeagatik edo bete ezin izateagatik sortua. Egoeraren larritasunaren arabera, pertsona adingabea arrisku- edo babesgabezia-egoeran egon daiteke, arrisku-egoerari dagokionez lege honen 176 eta 177. artikuluetan ezarritakoa eta babesgabezia-egoerari dagokionez lege beraren 187 eta 188. artikuluetan ezarritakoa aplikatuz.*
- 2. Babesgabetasun-egoera eragin dezake aurreko tituluan jasotako indarkeria motetako edozeinek, baldin eta indarkeria horiek bizikidetzako familia-ingurunean gertatzen badira edo ingurune horretatik kanpo gertatu arren legezko ordezkari edo harreragileek eta zaintzaileek jakinda, adostasuna emanda edo toleratuta gertatzen badira eta, betiere, pertsona adingabea babesik gabe egotea badakarte. Bestalde, indarkeriazkoak ez diren beste egoera batzuek ere eragin dezakete, baldin eta inguruabar, gabetasun edo gatazka familiarak, sozialak edo hezkuntzakoak tarteko, kalte egiten bazaio pertsona adingabeari bere garapen pertsonal, familiar, sozial edo hezkuntzakoan, bere ongizatean edo bere eskubideetan.*

- 3. Lege honen esparruan, babesgabetasunarekiko zaurgarritasuna da egoera bat zeinean, pertsona adingabearen beharrezko arreta egokia ematen zaien arren, badiren zailtasun pertsonal, familiar edo sozial batzuk egoera horrekiko zaurgarritasuna dakartenak eta, ondorioz, babesgabetasun-egoera bat ager litekeen etorkizunean, aurreko apartatueta ezartzen denaren arabera.*

Egoera horiek **ez dute adingabearen integritatea arriskuan jartzen berehala**, haurrean edo nerabeen detektatu den eraginaren larritasun-maila eta gurasoen jokabidearekin duen lotura direla eta, baina udal gizarte zerbitzuei jakinarazi behar zaizkie.

Ikastetxeko langileek, hainbat adierazleren bidez hauteman dezakete kasu horiek haurren ustezko babesgabetasun egoera dakartela. Nabarmentzekoak:

- Haur edo nerabearengan ikus daitezkeen adierazle esanguratsuak (fisikoak edo bestelakoak).
- Guraso edo legezko tutoreengan ikusitako adierazle esanguratsuak (alkohol-usaina, indarkeria-jokabideak haurrekiko, emakumeen aurkako indarkeria, haurren edo nerabearen beharrei kasurik ez egitea, etab.).
- Aitaren edo amaren jarrera edo haurren ardura duten pertsonen jarrera adingabearekin jarraitzen den hezkuntza arloko esku-hartzearekiko (adibidez, seme-alabak eskolaratzen ez laguntzea, eskola-arloan haur edo nerabearengan antzemandako adierazleei dagokienez azaldu diren kezkek edo egin diren gomendioak gutxiestea eta beharrezkoen aurrean hezkuntza-orientazioak ez betetzea, edo beteko direla adieraztea eta jaramonik ez egin ondoren...).
- Hirugarrenek emandako eta fidagarritzat jotzen diren informazioak (adingabearen etxeak ez diren senideak, auzokideak, ezagunak...).
- Adingabearen esanak edo testigantzak.

Halaber, gurasoen edo arduradunen babesgabetasunarekiko zaugarritasuneko beste egoerak ere hartuko dira aintzat. Ondokoak, esaterako:

- Beste seme-alabaren bat babestu ez izana iraganean.
- 20 urtetik beherako adina, zailtasun kognitiboak edo heldutasunik eza eta babes-iturri urriak edo bat ere ez izatea.
- Zailtasun ekonomiko edo material esanguratsuak.
- Familia gurasobakarra izatea eta babes-sare naturalik ez izatea familiaren edo komunitatearen aldetik; edo gizarte-babesik ez izatea.
- Gizarte-bazterkeria edo gizarte-bazterkeria pairatzeko arriskuan dauden talderen bateko kide izatea.
- Familiaren berriz elkartzeak.
- Ezegonkortasun handiko edo ordutegi oso nahasia duten lan-baldintzak
- Nahasmendu psikopatologikoen presentzia, ondoeza psikologikoko sintoma esanguratsuak, zailtasun handiak agresibitatea kontrolatzeko, toxikoak kontsumitzea.
- Ezegonkortasun edo zailtasun handiak bikote-harremanean.
- Gurasoaren eginkizunak gauzatzeari loturiko estres-maila altua.

2.2. Gerta daitezkeen babesgabetasun-egoeretan jarduteko prozedura

Legeak egoera komunikatzera behartzen du ikastetxea, zeinak ez duen gurasoen edo legezko tutoreen adostasunaren beharrik horretarako.

Ikastetxeko langileek, babesgabetasun-egoeraren bat egon daitekeela susmatzean, ikastetxeko zuzendaritzari eta ongizate eta babes koordinatzaileari jakinarazi beharko diete. **Kasua presazkoa eta larria bada, haurrak eta nerabeak babesteko dagokion foru zerbitzuari ere jakinaraziko zaio.**

Ikastetxeko zuzendaritzaren oniritziarekin beti ere, ustezko babesgabetasun-egoera bakoitzerako, gizarte zerbitzuekiko solaskidea pertsona berbera izango da beti, **ongizate eta babeserako koordinatzaileak eta/edo irakasle aholkulariak edo orientatzaileak** ahal dela.

Gizarte-zerbitzuekin solaskide gisa arituko den pertsonak **aurretiazko kontsulta** egin diezaieke (telefonoz zein bilera telematikoko baten bitartez) **udal gizarte zerbitzuei**, adingabearengan ikusi

dituen adierazleak babesgabetasun-egoera bati dagozkion ala ez jakiteko. **Informazio hori ikastetxeko zuzendaritzarekin eta ikastetxeko erreferentziako ikuskariarekin partekatuko da.**

Aurretiazko kontsulta egin ostean eta kasua jakinarazi behar bada, **kontsulta egin eta ondorengo 48 orduen barruan gehienez**, ikastetxeko solaskideak **jakinarazpena** idatziz bidaliko du, **I. Eranskina** erabiliz horretarako.

Erroldan sartuta ez dauden familien kasuan, familiaren egiazko bizilekua den udalerriko gizarte zerbitzuei bidaliko zaie jakinarazpena.

Kontuan izan behar da zenbait jarduketak ez dutela idatzizko jakinarazpena ordeztzen. Horrenbestez, ez dute babesgabetasun-protokoloa abiarazten. Hortaz, honako hauek **EZ** dute baliorik jakinarazpen gisa:

- Telefono-deiak edo gizarte zerbitzuekin egindako bileretan esandakoa.
- Familia gizarte zerbitzuetara bidaltzea.

Gizarte zerbitzuek, informazio ez formala edo behar ez den formatuan jaso badute, aipatu I. Eranskinari jarraiki egindako jakinarazpena egin dezan eskatuko diote dagokion ikastetxeari.



2.2.1. Gurasoak edo legezko arduradunak informatzea


Ustezko babesgabetasun-egoera gizarte zerbitzuei jakinarazi eta gero, ikastetxeak egintzari hori adingabearen aitari/amari edo legezko tutoreei jakinaraziko die. Komunikazioa **ahoz edo idatziz** egingo da, inguruabarren arabera ahal dela modu presentzialean eta gizarte zerbitzuekin adostuta:

- Ikastetxeak egokitzat jotzen badu **idatziz** jakinaraztea (aurrez aurre egin gabe), **II. Eranskinaren** bidez egingo du (Gurasoentzako jakinarazpena). Jarduketa hori jakinarazpenarekin batera egin daiteke edo, bestela, **7 eguneko epean gehienez**, gizarte zerbitzuei jakinarazi zaienetik.
- Adingabearen integritaterako arrisku handiko egoera aurreikusi duten (**bi sistemen adostasunarekin**) **salbuespenezko kasuetan soilik, ez da jakinarazpen formalik egingo.**

Komunikazioa banantze edo dibortzio kasuetan

Komunikazioak **bi gurasoei egingo zaizkie**, ikaslearen **legezko tutoretza eta zaintza bietako zeinek daukan kontuan hartu gabe**. Legeak aitari eta amari ematen die emantzipatu gabeko seme-alaba adingabean **guraso-ahala**, gurasoak elkarrekin bizi diren ala ez kontuan izan gabe. Banantzeak edo dibortzioak ezin du gurasoen informazioa eta parte hartzeko bideak mugatzeko arrazoi izan; izan ere, guraso-ahalaren titularrak izanik, gurasoek informazioa jaso eta parte hartzeko eskubidea dute, adingabearen garapen integrala zaintzeko egin beharra bete ahal izateko.

Informazioa mugatzea justifikatuta egongo da, bakar-bakarrik, **epaitegi** batek aitaren edo amaren guraso-ahala mugatzea edo kentzea berariaz erabakitzen badu, gurasoen eta seme-alaben arteko betebeharrak ez betetzeagatik. Ez banantzeak, ezta adingabearen zaintza gurasoetako bati emateak ere, ez du esan nahi aipatu erabakia hartu denik. Hortaz, seme-alabatasuna familia-liburuaren edo antzeko erregistro-agirien bitartez egiaztatuz gero, ez da guraso-ahalaren beste egiaztagiririk eskatu behar. Bere balizko mugatzea alegazioa egin duenak frogatu behar du.



An abstract drawing made with thick, textured strokes of various colors including black, blue, green, yellow, orange, pink, and purple. The strokes are layered and overlapping, creating a sense of depth and movement. In the top right corner, there is a large, solid blue number '3' that partially overlaps the drawing.

3

Eskola-esparruan antzemandako indarkeria fisiko, psikologiko, emozional eta/edo sexu-indarkeriako egoeren definizioa, adierazleak eta jarduteko prozedura

Atal honetan HNLren 11. artikulua dioenari jarraitu zaio. Honek, besteren artean, ondokoak jasotzen ditu:

Edozein kasutan, indarkeriatzat joko dira tratu txar fisikoa edo psikologikoa; zigor fisikoak, umiliagarriak edo laidogarriak; arduragabekeria edo zabarkeriazko tratua; mehatxuak, irainak eta kalumniak; esplotazioa; sexu-indarkeria; sexu-erasoak eta -abusuak; ustelkeria; prostituzioa; sexu-esplotazioa, sexu-jazarpenera, eskola-jazarpenera eta ziberjazarpenera; emakumeen genitalen mutilazioa; gizakien salerosketa, edozein helburutarako izanik ere; haur-eraketa; haur-pornografia eta onartu edo eskatu gabe pornografia atzitzea; genero-indarkeria; emakumeen kontrako indarkeria matxista; gorroto-delituak; sexu-estortsioa; datu pribatuak jendaurrean zabaltzea, sexu-indarkeriako datuak barne; bai eta haien familia-eremuan indarkeriazko edozein portaera izatea ere.

Sexu-indarkeriatzat jotzen da sexu-izaerako edozein ekintza onartu gabea, edo bizitza sexualaren garapen librea baldintzatzen duena edozein eremu publiko edo pribatutan, eremu digitala barne. Nolanahi ere, sexu-izaerako ekintzat jotzen dira Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren II. liburuko VIII. tituluan jasotako delituak, hots, emakumeen mutilazio genitala, ezkontza behartuak, konnotazio sexuarekiko jazarpenera eta sexu-ustiapenera bideratutako gizakien salerosketak.

3.1. Eskola-esparruan antzemandako indarkeria fisiko, psikologiko, emozional eta/edo sexu-indarkeriako egoeren definizioa eta ezaugarriak

Egoera hauetan, ikastetxeko langileek haur edo nerabearen integritatea **arriskuan egon daitekeela** (bizitza arriskuan jar dezaketen egoerak barne) susmatu dute eta, **berehala**, familiaren barruko tratu txar edo abandonatze larri bat edo adingabearen bizitzarako edo integritate fisiko edo psikikorako mehatxua suposatzen duen beste edozein egoera bat susmatzeko zantzuak daudela jakinarazi dute.

Ikastetxeko langileek adierazle mota ezberdinak kontuan izan ditzakete ustezko haurren aurkako indarkeria fisiko, psikologiko eta emozional eta/edo sexu-indarkeriako kasuak detektatzeko:

3.1.1. Adierazleak ikasleengan

Adierazle fisikoak

Lesioen presentzia

Ospitaleratzea edo tratamendu medikua behar da, agian, tratu txarraren eta/edo erasoaren eta sexu-abusu edo -erasoaren ondorioz (txosten medikoak jasotzen duenaren arabera):

- Behin baino gehiagotan ikusitako seinale fisikoak (ubeldurak, kolpeak, erredurak...)
- Azalpen arraroak eta ez oso sinesgarriak lesioari buruz
- Ebakiak sarritan
- Hezurren hausturak etengabe
- Objektu zehatzen, zigarroen edo puruen itxura duten erredurak; edo ur beroan murgildu izanaren ondoriozkoak diruditenak

- Giza-hozken seinaleak
- Zaintza medikuen falta tratamendua beharko lukeen lesio, zauri edo gaixotasun bat sendatzeko; edo aipatu zaintzak jaso ostean, ez da tratamendua behar bezala jarraitu
- Askotan errepikatzen diren etxeko istripuen ondoriozko lesioak
- Familia barruan gertaturiko ustezko sexu-eraso edo -abuso baten zantzu fisiko larriak; edo haurrak edo nerabeak sexu-abusua pairatu du familiatik kanpoko pertsona baten aldetik eta bere gurasoek edo legezko arduradunek ez dute ezer egin adingabea babesteko; edo egoera hori azaldu duen haur edo nerabe baten kontaketa.
- Tratu txar fisikoen eta elikadura-zabarkeriaren edo osasun-zaintzari loturiko zabarkeriaren (segimendurik ez pediatriatik, tratamenduaren edo diagnostikoaren segimendurik eza osasun-sistemaren aldetik) zantzu larriak, haurra hiltzeko arriskuan jartzeko edo honen garapena era esanguratsuan kaltetzeko adinakoak
- Tratu txar fisiko edo psikologiko errepikatua eta larria egon dela pentsatzera daramaten datuak
- Haur edo nerabearen abandonatzea bere ondoan pertsona heldu arduratsurik ez dagoelako (etxean, ikastetxean, kalean edo beste nonbait) eta ez dago gurasoak (edo arduradunak) aurkitzeko aukerarik edo aipatuak ez dira gai adingabea zaintzeko (ospitaleratze edo antzeko inguruabar baten ondorioz)
- Hirugarrenek emandako eta fidagarritzat jotzen diren informazioak (adingabearen etxeak ez diren senideak, auzokideak, ezagunak...).
- Adingabearen esanak edo testigantzak.
- Kontuan izan behar da zenbait indarkeria-adierazpenak inolako adierazle fisikorik ez dakartela. Esaterako, adierazlerik ez egoteak ez du esan nahi sexu-abusurik egon ez denik.

Oinarrizko beharrianak: osasuna, higiena eta elikadura

- Haurrak edo nerabeak zikin daude, usain txarra dute, arropa ez da eguraldirako egokia, etab.
- Nekea edo apatia, jokabide-aldaketekin edo gabe (adibidez, suminkortasuna, pasibotasuna, kontzentrazioa mantentzeko zailtasunak), familiaren ohituren edo ordutegiaren ondorioz ez baitu behar adina lo egiten edo deskantsatzen
- Gosaldu gabe joatea ikastetxera
- Aurreko egunean otorduren bat ez dutela egin esaten dute
- Oinarrizko zaintza medikoen falta

Jokabideari loturiko adierazleak

Gizarte- eta familia-harremanetan:

- Ez du etxera joan nahi (ikastetxean, jolastokian edo inguruetan ohi baino denbora gehiago egoten da)
- Gurasoen edo zaintzaileen beldur dela dirudi
- Bakarrik itzultzen da etxera
- Ez du bere familiari buruz hitz egiten
- Zainduko duenik ez duela adierazten du
- Asteburuaren ondoren okerrago bueltatzen da ikastetxera (triste, zikin, etab.)
- Gurasoen ardurak betetzen ditu anai-arreba txikiekin
- Aldi baterako desagertu da, familiaren lanean laguntzeko
- Ez diotela etxera sartzen uzten adierazten du
- Kalean noraezean dabil beti
- Beldur dela dirudi edo aitarekiko edo amarekiko errefusa agertzen du bere bila datozenean ikastetxera
- Etxean eraso fisikoak jasotzen dituela adierazten du
- Janaria lapurtu edo kentzen du

- Estimulazio bereizi gabeak eta neurri kanpokoak agertzen dituzten pertsona ezezagunetako
- Gaueko ordu txikiak arte etxean bakarrik uzten dutela edo lotara joan gabe geratzen dela adierazten du

Jarreraren eta nortasunean:

- Jarrera-aldaketa esanguratsua, arazo nabarmenik gabe
- Eraso-jarrerak eta/edo haserrealdi handiak eta luzeak
- Gizartearen aurkako jarrerak agertzen dituzten: ihesak, bandalismoa, lapurreta txikiak, etab.
- Kontrako harremanak eta urrunak
- Jarrera errea (alerta-egoeran, mesfidati...)
- Buruaz beste egiteko joera eta depresio-sintomatologia
- Jarrera-aterakadak (haurren jarrerak daukan adinerako)
- Bere burua lesionatzen du
- Materiala gaizki tratatu eta apurtzen du
- Arazo nabarmenik gabe negar egiten du
- Bakarrik, triste eta isil-isilik egoteko joera
- Besteon arretra erakarri nahi du beti
- Helduarekiko mesfidantza, bere promesen edo jarrera positiboen aurrean
- Lagun gutxi ditu ikastetxean edo zentroan
- Mina dauka askotan, arazo nabarmenik gabe
- Elikadura-arazoak (oso jatuna edo goserik ez)

Errendimendu akademikoan:

- Uko egiten dio talde-jardueretan parte hartzeari
- Ez da ikastetxera bertaratzen askotan, eta justifikaziorik gabe
- Atzerapenak garapen fisiko, emozional eta intelektualean
- Kontzentrazio-gaitasunaren galera
- Aldaketa handiak eskola-errendimenduan
- Nekatu egiten da eskolako lanak egiten
- Lanak gaizki eginda aurkezten ohi ditu
- Ez du eskola-materialik

Sexualitatean

- Sexu-jarrera esplizitua, jolas eta ezagutza desegokiak bere adinerako
- Estualdia agertzen du beste pertsonen aurrean arropaz aldatu behar duenean
- Bere adinerako desegokiak diren sexu-adierazpenak erabiltzen ditu
- Ezohiko sexu-jokabideak beste hurrekin, jostailuekin, bere buruarekin
- Sedukzio-jarrerak helduekin
- Zailtasunak ditu esertzeko edo ibiltzeko
- Beldur-jarrerak pertsonekin
- Haurren eta heldu baten arteko isilpeko harremana, erreserbatua eta baztertzaila
- Haurren gurusoak babesleegiak dira, haurrak bere kideekin duen harremana mugatzen dute, batez ere beste sexuokoa badira
- Jarrera hipersexualizatua edo autoerotikoa



3.1.2. Adierazleak gurasoengan edo legezko tutoreengan

- Ez omen dira haurraz edo nerabeaz arduratzen
- Ez dira inoiz ikastetxeko hitzorduetara eta bileretara bertaraten
- Haurra edo nerabea bestean aurrean mespretxatu eta umiliatzen dute
- Seme-alaba haien "jabetza" dela sentitzen dutela adierazten dute ("nire seme-alabarekin nahi dudana egin dezaket, nirea delako")
- Haurra ikastetxetik jaso eta ikastetxera eramaten dute, gizarte-harreman guztiak eragotziz
- Substantzia toxiko gehiegi hartzen dute (alkohola eta/edo drogak)
- Ez dituzte beren seme-alaben ez egoteak justifikatzen
- Diziiplina zorrotza eta autoritarioa justifikatzen dute
- Haurra edo nerabea gaiztoa dela uste dute
- Gehiegizko itxaropenak sortu edo adierazten dituzte, antsietatea edo sufrimendua sortuz adingabeari
- Haur edo nerabearentzako diziiplina desegokia erabili ohi dute
- Bitarteko edo laguntza propiorik ez dutenez seme-alabaren beharrianak asetzeko gai ez direla adierazten dute
- Beren ardurek eta egoera pertsonalak gaindituta agertzen dira
- Ezaxola edo pasibo agertzen dira haurraren arreta-deien, beharrianen edo arazoan aurrean
- Gogogabe edo lur jota dirudite
- Beren beharrianak adingabeak dituen horien gainetik jartzen dituzte
- Ohiko berandutzeak ikastetxera sartzeko eta ikastetxetik irteteko orduetan
- Haurraren detektaturiko adierazleen inguruan ikastetxeak agertu dituen kezkek edo egin dituen gomendioak gutxiesten dituzte; edo jarraituko dituztela badiote ere, ez dute egiten


3.2. Eskola-esparruan antzemandako ustezko indarkeria fisiko, psikologiko, emozional eta/edo sexu-indarkeriako egoeretan esku-hartzeko prozedura

Ikastetxean gertaturiko adingabe baten kontrako balizko tratu txar, jazarpen eta/edo eraso eta sexu-abusuen zantzuak detektatu eta/edo bildu dituen ikastetxeko langileak egoera **ikastetxeko zuzendaritzari eta ongizarte eta babeserako koordinatzaileari** jakinaraziko dio; honek, bere aldetik, **erreferentziako ikuskariari** jakinaraziko dio. Azken honek, **ikuskaritzaren lurralde unitateari eta lurralde ordezkariari** jakinaraziko die. Aldi berean, **ikastetxea Ertzaintzarekin jarriko da harremanetan, III. Eranskina** (Ertzaintzari jakinarazteko fitxa) **erabiliz** horretarako. **Ertzainak, bere aldetik, Epaitegiari eta Fiskaltzari** jakinaraziko die. Ertzaintzak, horrez gain, presazko bilera bat deituko du ikastetxeko ordezkariarekin eta inplikaturiko beste eragile batzuekin (oinarrizko gizarte zerbitzuak, etab.).

Halaber, **erasotzaileak gurasoak EZ direla edo familia-inguruneko kideak EZ direla egiaztatu den kasuetan, ikastetxeak egindakoaren berri emango dio familiari.**

Ustezko biktima den ikaslearen babesa eta segimendua ikastetxean bertan egingo da, beharrezko diskrezio, konfidentzialtasun eta ardura mantenduz. Babes hori bermatzeko beharrezkoak diren pertsonak baino ez dute esku hartuko.

Orokorrean, jarraian deskribatuko diren jarduketa-faseetako edozeinetan, ikastetxeak ondokoak izango ditu kontuan:



3.2.1. Eskolak EGIN BEHAR DUENA

- Susmo-zantzuei adi egon
- Indarkeria fisiko, psikologiko, emozional eta/edo sexu-indarkeria jasan duela dioen ikasleari begirunez entzun
- Haur edo nerabearen bat-bateko azalpena erregistratu: esaten duena hitzez hitz jaso eta kontaktaren inguruabarrak zehaztu
- Bere intimitatea errespetatu
- Ikastetxeko zuzendaritzari eta ongizate eta babeserako koordinatzaileari berehala jakinarazi.
- Kasuaren ezaugarriak zehazteko erabakigarriak izan daitezkeen datuak eta informazioak (detektaturiko egoera baino lehenagokoak ere izan daitezkeenak) erregistratu, ahalik eta modurik objektiboenean eta balio-judiziorik eman gabe.
- Informazioa ahalik eta zuhurtasun eta konfidentzialtasun handienarekin tratatu.
- Gurasoei edo legezko tutoreei jakinarazi: horrek adingabearen integritatea arriskuan jar dezakeela uste denean izan ezik (familia barruko sexu-eraso eta -abusua, tratu txar fisiko larriak, etab.).

3.2.2. Eskolak EGIN BEHAR EZ DUENA

- *Ez dio ez ikusiarena egingo egoerari eta ez du balio-judiziorik emango; ez dio haur edo nerabeari zalantzarik planteatuko tratu txarren, sexu-jazarpenaren edo sexu-erasoen eta -abusuen egiazkotasunari edo susmoari buruz*
- *Ez du inola ere haurraren edo nerabearen gorputza arakatu behar*
- *Ez du argazkirik aterako; ez du bideorik grabatuko*
- *Ez du galdeketa egin behar, langile eskudunek egingo baitute hori, berriz ere biktimizazioan ez erortzea bermatuko duten babes-baldintza egokietan. Ikastetxeak ez du haurraren aurkako tratu txarren eta sexu-jazarpen eta/edo sexu-eraso eta -abusuaren diagnostikorik egiten, ezta baieztatu ere; ikastetxeak susmoa edo zantzua jakinarazten du bakarrik.*
- *Behin esatearekin nahikoa da, ez zaio eskatuko beste pertsona baten aurrean errepikatze*

3.2.3. Susmagarria ikastetxeko langilea denean

Kolektibo horren barruan sartzen dira bai irakasleak eta ikastetxeko langileak, eta eskola-ordutegiaren barruan zein horretatik at adingabeekin harremanetan egon ohi diren ikastetxeko langileak (monitoreak, jangelako begiraleak edo zaintzaileak, entrenatzaileak etab.). Kasu guztietan, ikastetxeak neurriak hartuko ditu adingabea berehalakoan babesten dela bermatzeko:

- **Langile susmagarriaren jokaerak behatzeko beharrezkoak diren zaintza-eta antolamendu-neurriak** ezarriko dira, hezkuntza ikuskaritzak emandako jarraibideei jarraiki.
- **Antolamendu-neurriak ezarriko dira ikasle guztien eta, bereziki, balizko biktimaren segurtasuna bermatzeko.** Hori guztia, ikastetxeko zuzendaritzak idatziriko **txosten** batean jasoko da.

Zuzendaritzak, hezkuntza ikuskaritzarekin eta lurralde ordezkariarekin batera, salaketa bat egingo du Ertzaintzaren aurrean.

Susmoak oinarrিতa egonez gero, lurralde ordezkariak diziiplina-espeditente bat irekiko du eta, kautelazko neurri gisa, susmagarria den pertsonaren eginkizunak aldi baterako etetea erabaki ahal du. Horrez gain, eta zerbitzu eskudunekin koordinatuta, beharrezko neurriak hartuko ditu adingabeari behar bezalako laguntza emateko.

Prozedura judiziala irekitzen den kasuan, lurralde ordezkariak salatutako, ikertutako edo susmagarria den pertsonaren eginkizunak behin-behinean etetea erabaki ahal du; horren ondorioz, diziiplina-prozedura eten egingo da, harik eta irekitako prozesu judiziala amaitu arte. Prozesu judiziala amaitzean, amaierako ebazpena edozein dela ere, diziiplina-prozedurarekin jarraituko da.

Eginbideak irekitzen ez badira edo kasua artxibatzen eta largesten bada, ikastetxean berdin-berdin hartuko dira segurtasun-neurriak, besteak beste: eraginpean dauden pertsonen egoeraren prebentziozko segimendua eta segimendu horren ondorioen aldizkako erregistroa, harik eta beharrezkotzat jotzen ez diren arte.

Fiskaltzak, Ertzaintzak edo Epaitegiak espeditentean izandako eginbide edo aldaketa esanguratsu guztien berri emango diote lurralde ordezkariari, azken honek aipatuen arabera joka dezan.

Adingabearen gurasoei edo legezko tutoreei jakinaraztea

Ikastetxeko zuzendaritzak egiten dituen jarduketan berri emango die eta kasu horri dagokionez esanguratsua izan daitekeen informazioa bilduko du, betiere beharrezko diskrezio eta konfidentzialtasuna mantenduz prozesu osoan zehar.

Elkarrenganako komunikazioa Fiskaltza, Ertzaintza eta Epaitegiarekin

Kasu guztietan, salaketa jasotzen duen erakundeak beharrezkoa den komunikazioa ezarriko du lurralde ordezkariarekin, honek bere langileari dagozkion jarduketan garapenaren berri izan (izapideak onartzea edo ez onartzea, largestea eta antzekoak) eta erabaki egokiak hartzeko aukera izan dezan.

3.2.4. Ikastetxeak gurasoetako batek eragindako indarkeria fisiko, psikologiko, emozional eta/edo sexu-indarkeriako ustezko kasu baten berri izatea

Ikastetxeko langileren batek kasu horietakoren baten berri badu, hirugarrenen eskutik zein biktimaren beraren eskutik, egoeraren berri emango dio ikastetxeko zuzendaritzari. Honek, hezkuntza ikuskaritzari jakinaraziko dio eta azken honek, azkenik, lurralde ordezkariari jakinaraziko dio. Ikastetxeko zuzendaritzak dagokion salaketa egingo du Ertzaintzaren aurrean.

3.2.5. Ikastetxeak jakitea ikastetxetik kanpoko langile baten kontra salaketa judicial bat dagoela, indarkeria fisiko, psikologiko, emozional eta/edo sexu-indarkeriagatik

Ikastetxeak, hezkuntza ikuskaritzarekin koordinazioan betiere, behin-behineko neurriak hartuko ditu adingabea babesteko, eta arretaz behatuko die salaketaren xede den egoeraren inguruan frogak edo zantzuak izan daitezkeen seinaleei.

Babes-neurri horiek ikastetxean bertan hartuko dira, behar bezalako diskrezio, konfidentzialtasun eta ardura mantenduz; horietan, behar-beharrezkoak diren pertsonak baino ez dute esku hartuko.





Prebentzio-jarduketak hezkuntza-esparruan

Prebentzio-neurriak prestakuntza eta hezkuntza izaerakoak izango dira gehienbat eta hurrekin esku hartzen duten profesionaleri eta adingabeei berei zuzenduta egongo dira.

4.1. Irakasleak prestatzea

Ustezko babesgabetasun egoeretan esku hartzeko, babesgabetasun-egoeran erortzeko arriskuaren detekzio goiztiarrerako eta adingabeek ager ditzaketen babesgabetasun-arriskuko adierazle teknikoak ezagutzeko gutxieneko ezagutza eta praktika batzuk behar dira eta protokolo honek, bere kabuz, ezin ditu aipatuak bermatu.

Horrenbestez, indarreko araudiari jarraiki, hezkuntza-esparruan eskumena duen sailak haur eta nerabeak babesteko prebentzioari eta detekzio goiztiarrari buruzko prestakuntza-saioak edo -moduluak sustatuko ditu. Horien hartzaileak izango dira ikastetxeetako langileak zein ikasleak eta, bereziki, tutore diren irakasleak eta ikasleen ongizate eta babeserako koordinatzailea. Ildo berean, ikastetxeek gai honi buruzko prestakuntza sustatuko dute, HNLren 134. artikuluan xedatutakoa betez.

Prestakuntza horren funtsezko xedea da ezagupen eta trebezia nahikoak bereganatzea babesgabetasun-arriskuko egoerak eta hurren aurkako babesgabetasun-egoerak berak detektatu ahal izateko eta protokoloa dokumentu honetan zehaztutako baldintzetan exekutatzeko.

Horrez gain, espezializazio-maila handiagoko prestakuntza-beharrak ere azter daitezke, hezkuntza-esparruko langileentzat (irakasleak, hezkuntza ikuskaritza eta laguntza-zerbitzuak) zein protokolo honetan inplikaturiko beste eragile batzuentzat.

4.2. Familiak informatzea eta prestatzea

Ikastetxeek, indarreko legean (HNL) jasotako xedapena betez, ondokoa jakinaraziko dute familiei bidaliko zaien informazioan edo ikasturte hasieran gurasoekin eta legezko tutoreekin egindako bileretan: *“ikastetxean uste bada ikasleen babesgabetasun-egoera baten aztarnak daudela, hau da, zaintzaileek beren funtzioak betetzen ez dituztela, ikastetxeak horren berri eman beharko du derrigorrean. Hala egiten denean, eragindako ikaslearen familiari jakinaraziko zaio”*.

4.3. Ikasleak prestatzea

HNLren 134. artikulua dioenari jarraiki, ikastetxeek ikasleak trebatzeko planak sustatuko dituzte eta lehentasuna emango diote ikasleek gaitasun eta tresna jakin batzuk eskuratzeari gai izan daitezzen, batetik, indarkeria-egoerak detektatzeko eta haiei erantzuteko eta, bestetik, indarkeria eragiten duten indarkeriazko edo delituzko jokabide-ereduak ikastea nagusitzen den prozesuei aurre egiteko, horiek agertzen diren eremu guztietan, baita indarkeria hori gertatzen denean haiei tratamendua eta laguntza emateari ere.



**Gizarte zerbitzuei
jakinarazteari buruzko
alderdi esanguratsuak**

5.1. Informazio-trukea ikastetxeen eta gizarte zerbitzuen artean

Arrisku- eta babesgabezia-egoeretan esku hartu eta baloratzeko prozedura baten barruan, gizarte zerbitzuek (udal zein foru izaerakoek) informazioa eskatzen badiote ikastetxeari ikasle baten egoerari eta haren egoera sozialari eta familiakoari buruz, **IV. Eranskina** (Ikastetxeari laguntza eskatzea, haurrak eta nerabeak babesteko foru zerbitzuak/udal gizarte zerbitzuek abian duten segimendu-prozesu bati dagokionez) erabiliko dute horretarako.

Geroago beharrezkotzat jotzen badute **idatzizko informazioa** eskatzea ikastetxeko zuzendaritzari, **VII. Eranskinaren** (Udal gizarte zerbitzuaren edo haurrak eta nerabeak babesteko foru zerbitzuaren informazio-eskaria) bidez egingo dute. Egoera larrietan edo presazkoetan, idatzizko informazioa eskatu ahal izango da inolako bilerarik egin beharrik gabe.

Kasu horietan, zuzendaritzak sinatutako idatzizko txosten bat bidaliko die ikastetxeak gizarte zerbitzuei, eskura dituen informazioak eta datuak emateko, eta haiekin lankidetzan jardungo du esku-hartzearen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko. Txosten hori gehienez **7 eguneko** epearen barruan bidaliko du ikastetxeak, eskabidea jaso den egunetik zenbatuta.

Halaber, **udal gizarte zerbitzuek aldi-aldian jakinaraziko diote**, ikastetxeko zuzendaritzari, ikastetxeak familiarekiko dituen funtzioak betetzeko ezagutu behar duen informazio guztia. Normalean, **urtean bi aldiz** harremanetan jartzen saiatuko dira. Horretarako, **V. Eranskina** erabiliko dute (Udal gizarte zerbitzuen ofizio/komunikazioa ikastetxeari, arrisku-edo babesgabetasun-egoeren ingurukoa).

5.1.1. Txostenak emateko faseari loturiko alderdi esanguratsuak

HNLren 18. artikulua arabera, udalek eta foru-aldundiek, haur eta nerabeei arreta eta babesa emateko dituzten eskumenen eremuan, pertsona adingabearen egoera baloratzeko beharrezkoak diren informazio edo datuak eskatu ahal izango dituzte interesdunaren edo kaltetuaren eta, hala badagokio, aitaren eta amaren, legezko ordezkarien edo harreragile eta zaintzaileen adostasunik gabe, eta, horrekin bat etorritik, jasotako informazioa edo datuak bildu eta tratatzeari ekin ahal izango diote.



Zentzu horretan, uztailaren 28ko 26/2015 Legeak, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duenak, ondokoa zehazten du 22 quater artikulua lehena eta bigarren ataletan:

Lehena. *“Lege honen II. tituluko I. kapituluaren aurreikusitako helburuak betetzeko, administrazio publiko eskudunek, interesdunaren baimenik gabe, adingabearen egoera baloratzeko behar diren datuak bildu eta tratatu ahalko dituzte, berari buruzkoak zein bere familia edo gizarte-inguruneari buruzkoa. (...) Profesionalek, erakunde publikoek eta pribatuek eta, oro har, edozein pertsonak administrazio publikoei helaraziko dizkiete eskatzen dituzten adingabeen, beren guraso, tutore, zaintzaile edo harreragileen inguruko txostenak eta aurrekariak, horretarako beharrezkoak badira, eta horretarako ez da behar izango eraginpean dagoenaren baimenik”.*

Bigarrena. *“13. artikulua aitpatzen dituen erakundeek interesdunaren baimenik gabe erabili ahalko dute agindu horretan ezartzen diren betebeharrak betetzeko ezinbesteko informazioa, datu horiek administrazio publiko eskudunei edo Ministerio Fiskalari jakinarazteko, horretarako baino ez”.*

5.2. Sinatzaileei lekuko gisa dei egitea

Aitak edo amak adingabea babesteko hartu diren neurrien aurkako errekurtsioa aurkezten badu Familia Epaitegian, haurrak eta nerabeak babesteko foru aldundietako zerbitzuek espediente osoaren kopia bat bidaliko diote epaitegiari, Prozedura Zibilaren Legearen 780. artikulua araberaz. Espedientean ikastetxearen jakinarazpena dagoenez, sinatzaileei egoitza judizialera joateko deitu ahal izango zaie, lekuko gisa.

5.3. Espedientea eskuratzea

Ustezko babesgabetasun-egoeraren jakinarazpen-dokumentua, ikastetxeak egin, ikaslearen eskola-espedienteari gehituko zaio.

Adingabearen gurasoek edo legezko tutoreek, eskaria eginez gero, kasuaren espedientea ikusi eta horren kopia bat eskuratu ahalko dute, indarreko legedian xedatutakoaren arabera.

5.4. Eskola-testuinguruan adingabeei eginiko elkarrizketen legitimitatea

Ustezko babesgabetasun-egoera batean esku hartzeko eta baloratzeko prozesuan, gizarte zerbitzuek haur eta nerabeekin hitz egingo dute, haien egoera pertsonalari buruzko datuak biltzeko elkarrizketa baten bitartez; horren aurretik, gurasoei edo legezko tutoreei jakinaraziko diete adingabeak prozesu horren barruan daudela. Elkarrizketa hori gizarte zerbitzuen bulegoetan egin daiteke, gurasoek edo legezko tutoreek berek adingabeak bertara eraman ondoren; bestela, eta gurasoek baimentzen badute, ikastetxean bertan egin daiteke.

Egoera bereziak:

Ustezko **babesgabetasun-egoeretan (moderatu edo larria)**, gurasoei edo legezko tutoreei alde aurretik jakinarazteak arriskua badakarkio adingabearen integritate fisiko edo moralari, edo bere kontaketa baldintzatzen badu, **gizarte-zerbitzuek ikastetxeari eska diezaiokete bertako azpiegitura erabiltzeko, gurasoek edo legezko tutoreek jakin eta baimendu gabe, elkarrizketa egiteko adingabeei**, kasu horietan hori baita modu bakarra adingabearen integritatea babesteko, haren egoera baloratzeko datuak lortzeko eta babes-neurri egokiak hartzeko, HNLren 146. artikulua dioen bezalaxe:

146. artikulua.- *Gizarte-zerbitzuen jarduketak.*

“Ertzaintzaren, Udaltzaingoaren, Fiskaltzaren, osasun-zerbitzuen, ikastetxeen eta beharrezkotzat jotzen duten edozein zerbitzu publikoren laguntza eskatu ahal izango dute, pertsona adingabearekin edozein testuingurutan elkarrizketatu ahal izateko, eta haren gurasoen, legezko ordezkarien edo harreragileen eta zaintzaileen baimenik behar izan gabe”

Era berean, jarduketa berezi hori 1/1996 Legeak, urtarrilaren 15ekoak, Adingabekoen babes juridikoarenak ere babesten du, 22 quater bere artikuluan:

“Lege honen II. tituluko I. kapituluan aurreikusitako helburuak betetzeko, administrazio publiko eskudunek, interesdunaren baimenik gabe, adingabearen egoera baloratzeko behar diren datuak bildu eta tratatu ahalko dituzte, berari buruzkoak zein bere familia edo gizarte-inguruneari buruzkoa”.

Kasu honetan ulertzen da “datuen bilketa” horretan adingabeari eginiko elkarrizketak sartzan direla halabeharrez eta jarduketa horrek ezin duela, inola ere, arrisku osagarriarik suposatu adingabearen, ezta bere kontaketa kutsadurarik edo manipulaziorik ere. Ikastetxea gizarte zerbitzuen lana erraztera mugatuko da, beharrezko konfidentziasuna mantenduz kasuaren inguruabarren inguruan.

5.5. Ikastetxearen laguntza adingabeak babesteko neurrien exekuzioan

Adingabe baten babes-neurriak ikastetxetik exekutatu dira, **haur eta nerabeak babesteko foru zerbitzuak honako zio hauetako batengatik hala eskatzen duen kasuetan soilik:**

- Adingabeak ez duenean bere kabuz jo haurrak eta nerabeak babesteko udal zerbitzura edo bere familiaren etxera.
- Adingabearen integritate fisikoa edo psikikoa arrisku larrian jartzen denean, zeinak aipatua haurrak babesteko zentro batean berehala sartzea eskatzen duen
- Ihes egiteko arriskua dagoenean
- Foru zerbitzuak justifikatu duen beste zioen bat, ikastetxearen laguntza eskatzen duena.

Haurrak eta nerabeak babesteko foru zerbitzuak idatzi bat igorriko dio ikastetxeko zuzendaritzari, behar adinako aurrerapenarekin, ikastetxearen laguntza eskatuz bere zerbitzuek adingabea zentroan hartu ahal izateko. Aipatu idatzirako, **VI. Eranskina** erabiliko da (Foru aldundiaren laguntza-eskaria ikastetxeari, haurra bertatik ateratzeko).

Idatziarekin batera, adingabearen babesgabetasun-egoera aitortzen duen **Foru Arauaren¹ kopia** bat ere bidali beharko da eta Foru Aldundiak automatikoki hartuko du bere gain adingabearen tutoretza; horrenbestez, adingabearen gurasoen guraso-ahala denboraldi batez eten egingo da.

Haurrak eta nerabeak babesteko foru zerbitzuak ondoko alderdiak jaso beharko ditu ikastetxeko zuzendaritzari igorritako idatzian:

- Haurra edo nerabea lekualdatzeko baimenduta dauden teknikariak. Hauek, ahal dela, adingabearekin konfiantzazko harreman bat duten pertsonak izango dira.
- Lekualdatzea ertzainen laguntzarekin egingo den ala ez, haurraren edo nerabearen eta inplikaturiko teknikarien segurtasuna bermatzeko. Horrela egingo den kasuetan, eta ahal dela, ertzainak kale-jantzian egongo dira eta lekualdatzea Ertzaintzaren ikurrik ez duten ibilgailuetan egingo da.

Adingabea ikastetxetik ateratzeko jarduketak, ahal dela, honela koordinatuko dira: adingabea ikastetxetik haurrak babesteko zentrorera eramaten den bitartean, haurrak eta nerabeak babesteko foru zerbitzuak aitari eta amari aurrez aurre jakinaraziko die, bere bulegoetan, haien semea edo alaba zaintzarako egokitutako babes-zentrorera eramanez izan dela.

Era berean, ikastetxeak egoeraren berri emango dio hezkuntza ikuskaritzari, azken honek Foru Aldundiak ikastetxean gauzaturiko jarduketaren aurreko edo osteko segurtasun-neurri gehigarriak ezartzeko beharra azter dezan, profesionalen eta ikasleen segurtasuna bermatzeko.

1 Kode Zibilaren 172. artikulua eta HNLren 60. artikulua diotenarekin bat.



**Hezkuntza-arloan
eskumena duen sailaren
eta osasun-zerbitzuen
arteko koordinazioa**

Osakidetzako zerbitzu-erakunde guztiek babesgabetasun-egoerei edo haurren eta nerabeen aurkako indarkeria fisiko, psikologiko, emozional eta/edo sexu-indarkeriako egoerei erantzuteko osasun-jarduketa protokolo bat dute eta osasun-zerbitzuek eta gizarte-zerbitzuek batera aurre egiten diote aipatu egoerari.

Protokolo honek ikastetxeetatik esku hartzeko modua jasotzen du, bi egoera motaren detekzioaren aurrean:

6.1. Premiaz jardutea eskatzen duten lesio fisikoak edo egoerak antzematea

Bi egoera aurreikusten dira:

- **Premiazko egoerak**

Premiazko arreta medikoa eskatzen duten lesio fisikoak sortu dituen tratu txar larrien balizko kasu baten aurrean, **ikastetxeko zuzendaritzak 112 telefonora deituko du.**

- **Beste egoera batzuk**

Lesioak sortu dituen tratu txarren balizko kasu baten aurrean, ikastetxeko zuzendaritzak edo honek bere ordezkari izendatu duen pertsonak adingabea erreferentziako larrialdietarako osasun-zerbitzura (ospitalea edo anbulatorioa) eramango du. Azken honek, dagokionean, kasu horietarako ezarritako protokoloa abian jarriko du.

Ikastetxeak lekualdatzearen berri emango dio familiari –lekualdatzean zehar edo adingabea osasun-zentrora iritsi eta gero–, gurasoek edo legezko tutoreek izan ditzaketen erreakzioen arabera (ihes egiteko arriskua, arreta medikoa ez jasotzeko arriskua, etab.).

Osasun-zerbitzuen aburuz adingabearen integritatea arriskuan badago, adingabea osasun-zentroan mantenduko da dagokion babes-neurriak ezartzen diren arte.



**Hezkuntza-arloan
eskumena duen sailaren
eta ertzaintzaren arteko
koordinazioa**

Ertzaintzak herritarrek beren eskubide eta askatasunez modu baketsuan gozaten dutela bermatu behar du. Eginkizun hori esanguratsuagoa da adingabeen eskubideak eta askatasunak bermatu behar direnean, mendekotasun-egoeran bizi diren eta gizartearen etorkizuneko bilakaerari lotuta dauden heinean.

7.1. Prozedura eta koordinazio-jarraibideak

Ertzaintzak hezkuntza-arloan eskumena duen sailarekin koordinazio hobea bermatzeko, ikastetxeen eskura dauka **Ikerketa Kriminaleko eta Polizia Judizialeko Zerbitzu Nagusia, Pertsonen Arloaren** bidez. Ondorioz, ikastetxeak indarkeria fisiko, psikologiko,

emozional eta/edo sexu-indarkeriako delitu baten gauzatzeari lotuta egon daitezkeen gertakarien susmorik, zantzurik edo berririk duenean, informazio hori arlo horretako polizien eskura utz dezake.

Salaketa-prozesuan, datuen bilketan ertzainek informazioa egituratzen lagunduko dute eta, hala badagokio, hartuko diren neurriak orientatu ahalko dituzte, premiazko kasu bati erantzunez zein gerora ikerketa berriak egiteko.

Zerbitzu honen bitartez arreta maila bera eman nahi zaie ikastetxe guztiei, gertakaria hartu duen EAEko lekua edozein dela ere.

Ondokoak dira harremanetarako telefonoak:

Telefono espezializatua (9.00etatik 17:00etara, astelehenetik ostiralera)	24 ORDUKO LAGUNTZA-TALDEA
677999736	677999736
	677917223

24 orduko laguntza-taldearen premiazko esku-hartzerik behar ez duten kasuetarako, ondokoa da arloko arduradunaren emaila: jperso@ertzaintza.eus

7.2. Ertzaintzak adingabeko biktimen edo babesgabezia-egoeran dauden adingabeen kasuan esku hartzeko jarraibideak

- **Biktima artatzea:** Beste edozein jarduketatan bezala, biktima berehala artatu behar da, lehen-lehenik; adingabeak, kasu honetan. Behar duten laguntza eskaini behar zaie, osasun-zentro batera, polizia-bulegoetara eraman, etab.
- **Informazioa biltzea:** Ondoren, eskuragarri dagoen kasuari loturiko informazio guztia bilduko da.
- **Zigor-arloko arau-haustea badago:** Inplikaturiko helduek zigor-arloko arau-hausteren bat egin dutela susmatuz gero, ikerketak ezarritako prozedurari jarraituko dio eta, horretarako, dagokion kautelazko neurriak hartu eta dagokion argiketa gauzatuko da.
- **Gizarte-laguntza:** Adingabeak ez duenean bere gurasoen edo senideen zaintzapean geratzerik edo ez bada komeni hori egitea, haurrak eta nerabeak babesteko foru zerbitzuarekin kontaktatu beharko da. Edozein kasutan, adingabea delitu izan daitekeen indarkeria fisiko, psikiko, emozional eta/edo sexu-indarkeriako kasu baten biktima denean, Instrukzio-epaileak – ikerketaz berez arduratuko den organoa den aldetik– edo, hala badagokio, Adingabeen Fiskaltzak eman ditzakeen eginbide, jarraibide edo kautelazko neurri zehatzak kontuan hartu beharko dira.



**Hezkuntza-arloan
eskumena duen sailaren
eta fiskaltzaren arteko
koordinazioa**

Fiskaltzari dagokio justiziaren jarduketa sustatzea legezkotasuna, herritarren eskubideak eta legean babestutako interes publikoa defendatzeko. Era berean, bere gain hartu behar du edo, hala badagokio, sustatu behar du jarduteko gaitasunik edo legezko ordezkariarik ez duten eta, beraz, beren kabuz jardun ezin duten pertsonen ordezkariak eta defentsa. Halaber, izaera zibileko legeetan jasotako tutoretza-erakundeen eratzea sustatu behar du, bai eta pertsona babesgabeak babestea eta defendatzea xede dutenetan parte hartu ere.

Horrexegatik, fiskaltzaren esku-hartzea oso garrantzitsua da adingabeen babesgabetasun-kasuetan edo horien aurkako indarkeria fisiko, psikologiko, eta/edo sexu-indarkeriako kasuetan.

8.1. Prozedura eta koordinazio-jarraibideak

Fiskaltzak adingabeen babesgabetasun-egoera baten edo horien aurkako indarkeria fisiko, psikologiko, eta/edo sexu-indarkeriako kasu baten berri duenean, salaketaren jatorria edozein dela ere, lege prozesalei eta haurrak babesteko legeei jarraiki eta bere eskumenak aplikatuz, gertakariak ikertzeko bere ustez beharrezkoa den hori adostuko du eta, ondorioz, haur edo nerabe baten aurkako ustezko tratu txarren edo sexu-eraso eta -abusuko kasu batengatiko prozedura judiziala irekitzeko eskatu ahalko du.

Fiskaltzak, kasuaren premia-maila aintzat hartuz, adingabea zaintzeko eta babesteko egokitzat jotzen dituen neurriak hartzea eska diezaioke organo izapidegileari; halere, kasuaren berri eman beharko dio haurrak eta nerabeak babesteko foru zerbitzuari ere, egoki deritzon erabakia har dezan.

Ustezko tratu txarren emailearen edo erasotzailearen aurkako prozedura judiziala irekitzen denean, Fiskaltzak horren berri emango dio hezkuntza lurralde ordezkariari, beharrezkoak diren neurriak har ditzan, beste zerbitzu eskudunekin batera, hezkuntza-esparruan adingabearen babesa bermatu ahal izateko. Era berean, Fiskaltzak espedientean egon diren izapide edo aldaketa esanguratsu guztien berri emango dio lurralde ordezkariari, aipatuen arabera neurri berriak har ditzan.



**Hezkuntza-arloan
eskumena duen sailaren
eta epaitegiaren arteko
koordinazioa**

Lehen-lehenik ohartarazi beharra dago protokolo honetatik ezin zaiela jarraibiderik eman epaile eta magistratuei, ezta arau prozesalean xedatutakoaren arabera gauza ditzaketen jarduketa prozesala mugatu ere.

9.1. Prozedura eta koordinazio-jarraibideak

Salaketa Ertzaintza, hezkuntza ikuskaritza edo ikastetxe, gizarte zerbitzu edo antzekoen aurrean egin bada, epaitegira ere igorri beharko da, eskura dauden zantzu eta/edo frogekin batera.

Salaketa adingabe baten aurkako eta eskola-testuinguruan gertatu edo detektatu diren tratatu txar, sexu-jazarpen eta/edo sexu-eraso eta -abusuko egoeren ingurukoa izango da, tratatu txarren emaileak gurasoak edo legezko tutoreak ez direla frogatuta badago. Egoera hauetan haur edo nerabea babestu beharra dago, familiari informazioa helarazi behar zaio eta Ertzaintza, Fiskaltza, epaitegia eta antzeko beste erakunde batzuen esku hartzea bermatu behar da. Ondorioz, prozedura berezia izango dute.

Adingabetasun-egoeraren eragileak gurasoak, legezko tutoreak edota etxeko bizi-unitateko kidea direnean, gizarte zerbitzuek hartuko dute protagonismoa eta dagoeneko ezarrita dituzten prozedurei jarraituko diete.

Jardunbide judizialeko fasearen hasieran inguruabar horren berri emango zaio hezkuntza lurralde ordezkariari. Honek, eskumena duten zerbitzuekin batera, beharrezko neurriak hartuko ditu hezkuntza-esparruan haurraren edo nerabearen babesa bermatzeko. Era berean, espedientean izandako eginbide edo aldaketa esanguratsu guztien berri ere emango zaio lurralde ordezkariari, azken honek aipatuen arabera joka dezan.

Halaber, eta babesari dagokionez, epaitegiaren jarduketan eta haurrak eta nerabeak babesteko foru zerbitzuaren jarduketan arteko beharrezko koordinazioa bermatu behar da. Horrenbestez, epaitegiak prozeduraren hasiera eta, hala badagokio, bere artxibatzea jakinarazi beharko lioke aipatu zerbitzuari.



10



**Protokoloaren
ebaluazioa eta segimendua**

Segimendu-batzordearen ardura izango da:

- Protokoloaren egokitasuna ebaluatzea
- Protokolo honetan jasotako jarduketak koordinatzea
- Protokolo honi loturiko datuak biltzea eta aztertzea.
- Proposamenak egitea, datuen azterketa oinarri hartuta.

Urtero bilduko da, aipatu batzordeko presidentek deituta. Batzordearen kideak honako hauek izango dira:

- Hezkuntza sailburuordea (presidente eginkizunak izango ditu)
- Aniztasunerako eta hezkuntza inklusiorako arloan eskumena duen zuzendaria
- Hezkuntza ikuskari nagusia

- Hurrei buruzko politiken arloan eskumena duen zuzendaria
- Haurrak eta nerabeak babesteko foru gizarte zerbitzuetako ordezkari bat
- Udal gizarte zerbitzuetako ordezkari bat
- Osasun Sailaren ordezkari bat
- Segurtasun Sailaren ordezkari bat
- EAEko Adingabeen fiskaltzaren ordezkari bat
- Hezkuntza ikuskaritza nagusiko kide bat, hezkuntza ikuskari nagusiak izendatua. Idazkari eginkizunak izango ditu



Eranskinak



I. ERANSKINA. ADINGABEAREN BABESGABETASUN-EGOERAK HAUR ETA NERABEAK
BABESTEKO UDAL EDO FORU ZERBITZUEI JAKINARAZTEKO FITXA

Data	
Nori bideratu zaio jakinarazpena:	

Jakinarazpena egin duen edo egoera bideratu duen pertsonaren datuak

Izen-deiturak	Zerbitzua
Kargua edo lanpostua	Tel
Helbidea	Emaila

Adingabeen datuak

Izen-deiturak	Jaioteguna	Generoa

Adingabeen bizilekua

Zein da ohiko helbidea?

No daude orain?

Arduradunak

Izen-deiturak	Ahaidetasuna	Helbidea	Tel.

Beste ahaide batzuk

Izen-deiturak	Ahaidetasuna	Helbidea	Tel.

Jakinarazpenaren zioa (azalpen laburra).
Noiztik ezagutzen da egoera hau eta zer nolako maiztasunarekin gertatzen da?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

- Kalte- edo ondoez-adierazleak haurrengan (fisikoak, jokabide izaerakoak, garapen kognitiboari lotutakoak, kideekin eta helduekin dituzten harremanei lotutakoak...).
- Familiak dituen beste arazo esanguratsu batzuk.
- Gurasoaren, tutorearen jokaera hurrekiko.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

- Adingabearen arduradunen eta jakinarazpena egiten duen ikastetxearen/profesionalaren arteko harreman mota.
- Jakinarazpena egiten duen ikastetxeak/profesionalak arazo honen harira egin dituen jarduketak (gurasoekin, haurrarekin, beste erakunde batzuekin...) eta lortutako emaitzak.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

- Jakinarazpenaren berri al dute arduradunek? Zer nolako erreakzioa izan dute informazio horren aurrean? Gizarte zerbitzuen laguntza jasotzeko aukerarik al dago? Arazo/zailtasunaren kontzientzia maila.

.....

.....

.....

.....

.....

- Garrantzitsutzat jotzen den bestelako informazioa.

.....

.....

.....

.....

.....

Sin.:

Sin.:

II. ERANSKINA. FAMILIARI JAKINARAZTEKO IDATZIA

Data	
	familia

Honen bidez jakinarazten dizuegu ikastetxe honek ondoko erakundeari jakinarazi diola (hutsuneak bete eta x batez markatu)

- Udal gizarte zerbitzuak,
- Haurrak eta nerabeak babesteko foru gizarte zerbitzuak,
- Guardiako epaitegia,
- Ertzain-etxea,

..... zuen seme-alabaren egoera, aipatu egoeraren balorazio-prozesua egin eta esku hartu eta babes-baliabideak aktiba ditzaten, beharrezkotzat joz gero, detektaturiko arazoak konpontzeko.

Jakinarazpen hau 2/2024 Legeak, otsailaren 15ekoak, Haur eta Nerabeenak, 17. artikuluan komunikatzeko eginbehar kualifikatuari buruz xedatzen duena betez egin da. Aipatu eginbeharra bereziki eskatzen zaie beren kargua, lanbidea edo eginkizunak, ogibidea edo jarduera direla eta pertsona adingabearen kontra sortutako indarkeria-egoera baten berri duten, edo pertsona adingabe horren babesgabetasun-egoera posible baten berri duten pertsonen.

Ikastetxeak egin duen komunikazioa abiapuntu hartuz jarraituko den prozesuari buruzko informazio gehiagorako, jar zaitezte harremanetan arestian aipatu gizarte zerbitzuekin eta/edo haurrak eta nerabeak babesteko foru zerbitzuarekin.

Adeitasunez:

Sin.:

III. ERANSKINA. ADINGABE BATEN AURKAKO USTEZKO INDARKERIA FISIKO, PSIKOLOGIKO ETA/EDO SEXU-INDARKERIAKO EGOERAK ERTZAINZARI JAKINARAZTEKO FITXA

Data	
------	--

Egoera jakinarazi duen pertsonaren datuak

Izen-deiturak	Zerbitzua
Kargua edo lanpostua	Tel.
Helbidea	Emaila

Adingabearen datuak

Izen-deiturak	Jaioteguna	Generoa
---------------	------------	---------

Adingabearen bizilekua

Zein da ohiko helbidea

Non dago orain?

Arduradunak

Izen-deiturak	Ahaidetasuna	Helbidea	Tel.

Beste ahaide batzuk

Izen-deiturak	Ahaidetasuna	Helbidea	Tel.

Jakinarazpenaren zioa (azalpen laburra).
Noiztik ezagutzen da egoera hau eta zer nolako maiztasunarekin gertatzen da?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

- Kalte- edo ondoez-adierazleak haurrengan (fisikoak, jokabide izaerakoak, garapen kognitiboari lotutakoak, kideekin eta helduekin dituzten harremanei lotutakoak...).
- Familiak dituen beste arazo esanguratsu batzuk.
- Gurasoaren, tutorearen, zaintzailearen jokaera haurrekiko.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

- Adingabearen arduradunen eta jakinarazpena egiten duen ikastetxearen/profesionalaren arteko harreman mota.
- Jakinarazpena egiten duen ikastetxeak/profesionalak arazo honen harira egin dituen jarduketak (gurasoekin, haurrarekin, beste erakunde batzuekin...) eta lortutako emaitzak.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

- Arduradunek ezagutzen al dute jakinarazpen hau?
- Zer nolako erreakzioa izan dute informazio honen aurrean?
- Gizarte zerbitzuen laguntza jasotzeko aukerarik al dago?
- Arazo/zailtasunaren kontzientzia maila.

.....

.....

.....

.....

.....

- Garrantzitsutzat jotzen den bestelako informazioa.

.....

.....

.....

.....

.....

Fdo.:

Fdo.:

IV. ERANSKINA. IKASTETXEARI LAGUNTZA ESKATZEA, HAUR ETA NERABEAK BABESTEKO FORU ZERBITZUAK/UDAL GIZARTE ZERBITZUEK ABIAN DUTEN SEGIMENDU-PROZESU BATI DAGOKIONEZ

Centro: Ikastetxea

Zuzendaritza / Dirección:

.....k o udalaren gizarte-zerbitzuak/haurrak eta nerabeak babesteko foru zerbitzuak haurren eta nerabeen babesean dituen eskumenak gauzatuz, behean adierazten den eta zuen ikastetxean ikasten ari den adingabearen egoeraren jarraipena egiten ari da, adingabearen inguruko ikerketa eta balorazio prozesu bat burutu ondoren:

El servicio foral de protección a la infancia y la adolescencia de / El servicio social municipal de, en el ejercicio de sus competencias en materia de protección a la infancia y adolescencia, está llevando a cabo un proceso de seguimiento de la situación en la que se encuentra la siguiente persona menor de edad que ha sido escolarizada en su centro escolar, tras realizar un proceso de investigación y valoración en torno al mismo:

Ikaslearen izen-abizenak

Nombre y apellidos de la alumna/alumno

Jaiotze data

Fecha de nacimiento

Gurasoen edo legezko arduradunen datuak (izen-abizenak)

Datos de sus progenitores o responsables legales (nombre, apellidos)

Horrelako prozesu batean ikastetxeetako titularrek eta langileek laguntza emateko betebeharra dute gerta litezkeen babesgabezia egoerak saihesteko eta konpontzeko; hala, esku hartzeen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoak diren datuak eta informazioak eman beharko dituzte, betiere diskrezioz jokatzuz.

Según lo establecido en Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia Dentro de un proceso de este tipo los titulares de los centros educativos y el personal de los mismos están obligados a colaborar para evitar y resolver situaciones de posible desprotección, debiendo de comunicar los datos e informaciones que resulten necesarios y suficientes para garantizar la calidad y la eficacia de las intervenciones, actuando con la debida reserva.

Laster, haurren jarraipena egingo duten teknikariak zuekin harremanetan jarriko dira goian adierazitako gaiaren inguruan zuen lankidetzeta eta informazioa eskatzeko.

Próximamente las personas técnicas encargadas de realizar el seguimiento de este niño o niña se pondrán en contacto con usted/es para solicitarle/s su colaboración e información en el sentido apuntado anteriormente.

Kasuan arituko diren profesionalak eta telefonoa.

Profesionales asignados/as al caso y teléfono.

Prozedura honen inguruko zalantzarik argitu nahi izanez gero edo kasuari dagokionez garrantzitsua izan daitekeen informaziorik eman nahi izanez gero, profesional horiek harremanetan jar zaitezket.

En el caso de que deseen aclarar cualquier duda con respecto a este procedimiento o comunicar información que resulte relevante en torno al caso, pueden ponerse en contacto con los citados/as profesionales:

Aldez aurretik zuen laguntza eskertuz, adeitsuki agurtzen zaituztet.

Agradeciendo de antemano su colaboración, les saluda atentamente

Data eta Sinadura

Fecha y firma

V. ERANSKINA. UDAL GIZARTE ZERBITZUEN OFIZIO/KOMUNIKAZIOA IKASTETXEARI, ARRISKU- EDO BABESGABETASUN-EGOEREN INGURUKOA

Zuzendari agurgarria:

.....(e)(a)n, adingabeari buruzko ustezko arrisku-egoera baten jakinarazpen-orri bat jaso dugue)ko udal gizarte zerbitzu honetan.

Honen bidez, eskerrak eman nahi dizugu zuen inplikazioagatik eta zerbitzu honi laguntzeagatik. Eta jakinarazi nahi dizuegu ere haurren eta nerabeen aurkako arrisku-egoeretan esku-hartzeko ezarri den udal protokoloari jarraiki (aplikagarriak diren ondoko 3 ataletako bat aukeratu eta beste biak ezabatu):

- Kasua ikertzeko eta baloratzeko prozesua abian jarri dugula eta, horrenbestez, zuekin jarriko garela harremanetan laster, jasotako informazioa kontrastatzeko eta gure aurrerapenen berri emateko.

- Kasu honetan erreferentzia izango den zerbitzu honetako pertsona ondoko gizarte-langilea da:

.....

- Une honetan honako esku-hartze hauek gauzatzen ari garela adingabeekin eta familiarekin (esku-hartze mota(k) aukeratu): gizarte eta hezkuntzaren arloko esku-hartzea, arreta psikosoziala, segimendua oinarritzko gizarte zerbitzuen aldetik. Horrenbestez, zuekin harremanetan jarriko gara hemendik gutxira, jarduketak koordinatzeko.

- Kasu honetan erreferentzia izango den zerbitzu honetako pertsona ondoko gizarte-langilea da:

.....

-(e)(a)n adingabe honen/hauen espedientea itxi egin da eta esku-hartzea eskatu zaio (aukeratu) haurrak eta nerabeak babesteko foro zerbitzuari,

.....(e)ko adingabeen fiskaltzari etae)ko

Udaleko gizarte zerbitzuei (harremanetarako pertsona:).

Zuen interesa beste behin eskertuz eta ezarriko den koordinazioa adingabeek eta beren gurasoek/tutoreek intimitatera eta informazioaren konfidentziasuneran duten eskubidearen errespetuarekin bateragarria izango delakoan, adeitasunez,

Sinatzailearen kargua:

Sin.:

Igorlea (izen-deiturak)

..... (e)ko udal gizarte zerbitzuak

Helbidea

Harremanetarako telefonoak

VI. ERANSKINA. FORU ALDUNDIAREN LAGUNTZA-ESKARIA IKASTETXEARI, HAURRA BERTATIK ATERATZEKO

Zuzendari jauna/andrea:

